

Derioko Udalaren 2025eko urtarrilaren 24ko Alkatetzaren 2025/17 Dekretuaren bitartez honako laguntza hauen deialdia onetsi zen: Derioko erabilera publikoko espazio pribatuak berrurbanizatzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia.

BDNS (Identif.):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Dirulaguntzen onuradunak izango dira dirulaguntzaren xedean adierazi diren zonak konpontzeko jarduera egingo duten ondare-esleipenen hartzaile diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

Bigarrena. Helburua:

Dirulaguntza honen xedea da jarduketa pribatuak sustatzea Derioko udalerriko lur gaineko erabilera publikoko eta jabari pribatuko hiri-lurzoru gisa sailkatutako zonetan. Jarduketa pribatu horien helburuak izango dira erabilera publikoari eragiten dieten eraikuntza-elementuak konpontzea, non, besteak beste, lehenengo horien ondorioz kaltetu diren eraikuntza-elementu pribatuak barne hartuko baitira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

2024ko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarriak.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/12/30/II-7487_cas.pdf?hash=ebaeabb9a8cf376f521734144ac0fa7a

Laugarrena. Zenbatekoa:

Laguntza hauetarako gehieneko kreditu erabilgarria 40.000 euro da 1500.78100 aurrekontu-aplikazioaren kargura

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Epe 2025eko otsailaren 10ean hasi eta martxoaren 10ean amaituko da.

